



3 JARDUNALDIAK

Hiri hondakinen inguruan hausnartzeko

Lasarte-Oria Bizirik hiri hondakinei buruzko jardunaldiak antolatu ditu maiatzaren 12tik 19ra bitartean. Hitzaldiez gain, bisita gidatuak ere antolatu dituzte. Besteak beste, Usurbilera egingo da irteera atez-ateko sistema bertatik bertara ikusteko.

5 KUKUKA

Antzerki eta dantza hamabostaldia Kukukarekin

Maiatzaren 14tik 25era bitartean ospatuko dute Kukukoek Antzerki eta Dantza hamabostaldia. Taldearen X. urteurrena dela eta hainbat dira prestatutako ekimen bereziak. Maiatzaren 26an eta hamabostaldiari amaiera borobila emateko urteurrenaren festa handia egingo dute. Guztira 700 ikasle inguruk parte hartuko dute hamabostaldian eta 20 emanaldi baino gehiago egingo dira Manuel Lekuonan eta herriko Landa-berri eta Sasoeta-Zumaburu ikastetxeetan.

6 ATLETISMOA

Landaberriko taldea Gipuzkoako hirugarren

Landaberri ikastolako infantil taldea eskolarteko Gipuzkoako txapelketan hirugarren postua eskuratu zuen igandean. Honetaz gain, Gipuzkoako txapeladunorde izan ziren errelebo proban. Entrenatzaileen ustez, talde lanari esker lortu dira emaitza onak.

Michelingo zelaia eztabaidagai



Udalbatzarrean eztabaida sortu zuen Michelingo zelaia aldatzeko PSE-EEK aurkeztutako mozioak izan ere, lanak udaran hastekoak dira Taxio Arrizabalagak azaldu moduan.

Lasarte-Oriako PSE-EEK Michelingo zelaia inguruan aurkeztutako mozioa izan zen lehen gaia asteartean ospatu zen ohiko Udalbatzarrean. Zaballosek aurkeztu zuen Michelingo zelaiko belarra aldatzeko bere alderdiak egiten zuen proposamena eta gogor salatu zuen udal gobernuak dagoeneko udaran lan hauek hasteko asmoa lehenago jakitera eman ez izanagatik.

“Komunikabideen bidez jakin dugu zelaia aldatzeko lanak hastekoak direla eta aurrekontuetan hauek burutzeko diru partida aurreikusiten dela. Herritarren parte hartzea sustatzen duzue baina ez duzue berdin jokatzen udala osatzen dugun alderdiekin. Ez genuen honen berri beraz ez da hanka sartzea izan mozioa aurkeztea”.

Taxio Arrizabalaga zinegotziak erantzun nahi izan zion. Dagoeneko aurrekontuen borradorea eskutan martxotik

duela esan zuen honek eta bertan islatzen dela lan honetarako bideratutako dirua.

Estitxu Alkorta hitza hartu zuen ere hika-mika honetan eta azkenik alderdi sozialistak mozioa erretiratu zuen.

Gazte lokalak

Eztabaidarako hurrengo puntua PSE-EEK aurkeztutako beste mozio bat izan zen. Honako gazte lokalak arautzeko ordenantza bat sortzeko proposamena egiten zuen. Horrela gazteek euren aisiarako erabiltzen dituzten alokatutako lokal hauek segurtasun aldetik besteak beste, araudia betetzen dutela ziurtatuko luke ordenantza bereziak.

Pablo Barriok lokal hauen erabilera, orokorrean, aztertu behar dela esan zuen, erabiltzaileak nortzuk diren kontuan izan gabe. Lokal guztiek baldintzak bete behar dituzte la azpimarratu zuen alkateak “Bilduk ez du bereizketa egiteko beharrik ikusten”. Alka-

teak gaineratu nahi izan zuen herriko gazteen aisiarako eskaintza orain arte herrian nahiko eskasa izan dela eta hau dela eta, argitu direla mota honetako lokalak. Aurrerantzean gazteekin biltezeko asmoa erakutsi zuen alkateak hauen beharrak zeintzuk diren gertutik ezagutu behar direlako. “Gazteria autonomo eta parte hartzailea bultzatu behar da”.

Zaballosek mozioa zabalteko proposamena egin zuen, lokal guztiak arautuko dituen ordenantza bat proposatu. Bozketan berdinketa gertatu eta alkatearen kalitatezko bozkari esker ez zen mozioa aurrera ateratu.

Lodosara laguntza

Gai zerrendan azken puntua Bilduren mozioa zen. Hontan Lodosako Ibaialde ikastola laguntzeko ekimenarekin bat egitea proposatzen zen. Honen bitartez Lasarte-Oriako ikasle bakoitzeko udalak

50 zentimoko aportazioa egi-tea proposatzen zen, 700 euro guztira.

Udal kontu-hartzaileak hitza hartu eta honako ezin zela bozkatu azaldu zuen, diru hau ez dagoelako partidetan aurreikusita.

Hala ere, alderdiek euren iritziak eman zituzten, besteak beste, kontuetan Nafarroa Oinez laguntzeko diru partida jasotzen dela azpimarratu zuen Alkorta. Zaballosek aurreztearen aldeko jarrera defendatu zuen. Mozioa ez zen aurrera ateratu.

Michelingo egoera

Azken momentuan PSE-EEK Michelinek egingo duen aldi baterako enplegu erregulazioa dela eta langile eta hauen familiei babesa erakusteko mozioa aurkeztu zuen. Alderdiek bozeramaleen batzordean erabaki komun bat hartzeko asmotan, mozioa mahai gainean uztea erabaki zuten.


Aretoko dantzak:
pasodoblea, tangoa, vals, rock and rolla...

Latinoak:
salsa, merengea, cha-cha-cha, bachata...

Sevillana, flamenkoa eta kriskitinak

Funky eta Hip-hop

Sabel dantza



Amaia González Caballero
DANTZA-ESKOLA

5 ALDIZ EUROPAKO TXAPELDUN ARETO-DANTZAN

Dantza mota ezberdinak haur eta helduentzat



Uztailean ikastaro intentsiboak INFORMATU ZAITEZ !!

Jaizkibel plaza 8, atzealdea · Lasarte-Oria · Tel.: 606 974060

Neure kabuz



Ane Labaka

Herria bizirik dago

Hitz hauekin bukatu nuen larunbateko saioko azken bertsoa. 150 pertsonatik gora oholtzaratu ginen. Izan ere, herria auzoek osatzen dute eta auzoa pertsonak. Pertsonak auzolana eta auzolanak herri-gintza osatzen duten era berean. "Auzokoarekin auzolanean" izenekoan, ideologia, jatorri, afizio eta talde ezberdinetako jendea bildu zen eskutik heldu eta txalapartaren eritmorra aurreranzko pausuk emateko, herri oso bat, herri ezin koloretsuago bat.

Ez gara perfektuak, eta ezin zuen perfektua izan. Akatsak akats, ordea, kolore horiei emango nieke garrantzia; Rugby taldekoen beltzari, Mundialak gara taldekoek arrazakeriaren aurka erakutsi zuten esperantzaren berdeari, dantzari nahiz musikariaren pasioaren gorriari, antzerki eskolako Gernika antzezlanaren kolore zuri-beltzei... parte hartzaile guztiei, entzuleei eta batez ere, teloiaren atzekaldean ezkutatuta egon ziren guzti horiei, kolore gardena izateari utzi diezaioten.

Auzolanari eta herrigintzari heltzeko garaia da, inoiz baino gehiago. Eta Euskararen Maratoia izango da herrigintza horren gailurra. Euskaratik eta euskaraz bildu eta herritarren bihotzak itingero dira plaza. Osa dezagun bihotz gorri erraldoi bat eta izan dadila, bihotzez bihotz eta taupadaz taupada, gure herria bizirik mantenduko duena. Egurra!

Zorion agurrak



Iker eta Nora

Zorionak bikote! Muxu pila bat aitaxo-amatxo eta familiaren partetik.

Igor

Zorionak zure laugarren urtebetetzean, guraso eta familiaren partetik. Muxu pila eta ondo pasa.

Eneko

Zorionak eta sei muxu handi, aita, ama eta Aritzen partetik.



Maitane

Zorionak sorgintxo dagoeneko 4 urte!!!!!! Muxu asko familia guztiaren partetik.

Asier

Zorionak familia eta lagun partetik zure bostgarren urtebetetzean. Muxu handi bat.

Eneko

Zorionak pirata, ondo pasa muxu handi bat Oihane, amatxo eta aitaxoren partez!

Eneko

Zorionak bihurri zure urtebetetzean. 3 muxu goxo, familiaren partetik!



Izan

Zorionak txapeldun! Txokolatzeko bost muxu gurasoen eta Aiararen partetik.

Juan Carlos, Julien eta Jaione

Zorionak hirukote! Oso ondo pasa zuen egunean eta muxu handi bat amatxoren partetik.

Ciro

Zorionak handi bat, atzerapen pixkatekin zure lagun partetik.

Zorion agurrak bidaltzeko 943 36 68 58, txintxarri@txintxarri.info edo www.txintxarri.info web orrialdeko formularioa erabili dezakezue.

Heriotzak Jaiotzak

Jaiotzak

- Xune Azkonobietza Illarramendi, maiatzaren 3an.
- Paul Ensal Larriba, maiatzaren 1ean.
- Markel Blanco Blanco, apirilaren 27an

Heriotzak

- Francisco Perez Martin, maiatzaren 9an, 70 urte zituela.
- Angela Borda Zubeldia, maiatzaren 4an, 92 urte zituela.

Larrialdi telefonoak

Osasun Zentroa	943 007960
DYA	943 464622
Gurutze Gorria	943 363953
Udaltzainak	943 362442
Ertzaintza	943 288888
SOS Deiak	112

Farmazia Goardiak

EGUNEKOAK: 09:00-22:00

Ostirala, 11 De Miguel, Kale Nagusia 32	943 371151
Larunbata, 12 Acha-Orbea, Hipodromo et. 6	943 363549
Igandea, 13 Acha-Orbea, Hipodromo et. 6	943 363549
Astelehena, 14 Rodriguez, Kale Nagusia 42 atzea	943 361774
Astearta, 15 Gil, Kale Nagusia 24	943 361529
Asteazkena, 16 Acha-Orbea, Hipodromo et. 6	943 363549
Osteguna, 17 Urbistondo, San Frantzisko 1	943 366567

GAUEKOAK: 22:00-09:00, egunero

Chucha, Kardaberaz 48
Hernani, Tel.: 943 551793

Azoka txikia

Eskaintza inmobiliarioak

- Garaje marra bat alokatzen da, Hipodromo etorbidean. 680 674 577
- Bi hilabetetarako pisu bat behar da alokairuan (iraila, urria eta azarorako) Bi logelarekin. 652 762 221 Elena
- Aparkaleku bat alokatzen da, Hipodromo etorbidea. 652 726 532
- 50 mko apartamentu bat alokatzen da zentroan. Eraikuntza berrian dago. Gela bat, komuna eta sukalde-egongela dauka. Interesatuak deitu 616 164 823 Maider.
- Tarteko pisua duen 29 m²-ko lokal komertziala saltzen da Zabaletan. Interesatuak, deitu 615 793 320 telefono zenbakira.

- Etxea salgai erdialdean, bizitzeko modukoa, altzariekin. Bi logela, sala, sukaldea eta komuna. 171.288 euro. Harremanetarako deitu 659 594 797 zenbakira.

Lan-eskaintza

- Pertsona euskalduna behar da ume bat zaintzeko. Ekainetik hasita iraila arte. Eskolatik ordu kanpoko orduetan izango litzateke. Interesatuak deitu 665 716 075 telefonora deitu arratsaldeko zazpiketarik aurrera.

Lan-eskariak

- Emakumea eskaintzen da arratsaldeko 15:00tik 19:30ra garbiketa lanak egiteko edota

persona helduak zaintzeko. Harremanetarako 619 803 199 telefono zenbakira deitu.

- Gizonezkoak nekazaritza lanak edo beste edozein egingo litzuzke 14:00etatik aurrera. 625 423 540
- Mutil bat eskaintzen da lehenengo mailako ofizial modura, zarpaitu eta alikatatuetaan aditua. 20 urteko esperientziarekin. Interesadunek 667 085 834ra deitu.
- Haurrak eta helduak zaintzeko eskaintzen naiz. Esperientzia eta erreferentziak dituen neska naiz. Telefono: 662 187 787

Salerosketak

- Seat Ibiza Diesela Salgai. Tfnoa: 669 426 399.

Txintxarri diruz laguntzen duten erakundeak



Lasarte-Oriako Udala
Euskara Batzordea



EUSKO JAURLARITZA
KULTURA SAILA



GFako Kultura eta Euskara Departamendua

ZABORRA

Hiri hondakinen kudeaketa aztergai

Hiri hondakinei buruzko "Zaborrak: serio hitz egin dezagun" jardunaldiak bihar hasiko dira, hitzaldiez gain bisita gidatuak antolatu dituzte herrian barrena eta Usurbilera

Lasarte-Oria Bizirik taldeak hiri hondakinei buruzko jardunaldiak antolatu ditu maiatzaren 12tik 19ra bitartean. Hitzaldiez gain, herriko zenbait edukiontzi-gunetatik bisita gidatu antolatu dute herriko hondakinak biltzeko sistema ezagutzeko eta Usurbilera ere irteera atez-atekoa bertatik bertara ikusteko.

Lasarte-Oria Bizirik taldeak maiatzaren 12tik 19ra bitartean "Zaborrak: serio hitz egin dezagun" jardunaldiak antolatu ditu herrian. Hitzaldiez gain, hainbat dira prestatutako ekimenak.

Lasarte-Oria Bizirik taldeak hainbat urte daramatza gure ingurunean zaborrak errausteko planta bat eraikitzeko asmoaz ohartarazten eta euren helburu eta aldarria hondakinak beste modu batera kudeatzearen alde egitea da. Taldearen ustetan "errausketa osasunerako kaltegarria, garestia, eta inondik ere behar ez den sistema da eta saihestu beharrekoa dela defendatzen dugu".

Horrela zaborrarekiko orain arte nola jokatu den ikusi eta aurrerantzean nola



Herrian halako edukiontzi gunetatik egingo dute bisita gidatua Nerea Sanchez zinegotziak gidatuta.

kudeatu behar den aztertzeko antolatu ditu jardunaldiak.

Bihar, proiektzioak

Bihar, larunbata, izango da lehen saioa eta "kontsumismoa eta hondakinak" izenpean, bideo emanaldia izango da Okendo plazan 16:00etatik aurrera.

Asteartean, maiatzak 15, Usurbilen eta Hernanin bizi diren Andoni Castro, Itxaso Muguruza eta Igor Muñoa lasarteoriarrekin solasaldia izango da Villa Mirentxun 19:00etan. Honetan gertutik atez-atekoarekin izandako

esperientzia ezagutu ahal izango da.

Asteazkenean berriz, "Errausketa ala zaborteziak: gezurrezko dilema" hitzaldia eskainiko dute Kepa Olaiz eta Juanmi Galatas, Errausketaren aurkako plataformen koordinakundeak kideek. Hau ere Villa Mirentxun izango da 19:00etan.

Bisita gidatua

Ostegunean Nerea Sanchez ingurumen zinegotziak gidatuta, Lasarte-Oriako hondakinak biltzeko sistema hizpide, herriko zenbait edukiontzi-

gunetatik ibilbidea egingo da. Hitzordua Udaletxeko arkupeetan izango da, 19:00etan.

Larunbatean berriz, Usurbilera antolatu da irteera bertan egiten den atez-ateko sistema ezagutzera. Usurbilen, udaletxean 8:45ean da hitzordua eta herrian 8:10etan Tajamar (Euskotren) errotondan dagoen autobus geltokian Usurbilera elkarrekin joateko.

Lasarte-Oria Bizirikeko kideek jardunaldien garrantzia azpimarratu dute eta herritarrek hauetan parte hartzea animatu nahi izan ditu.

SAN PEDROAK

Jaietarako diru laguntzak eskatzeko epea

San Pedro jaietarako 2012. urteko ekitaldirako xedatu den kopurua 7.228,48 eurokoa izango da. Diru laguntza bakoitzaren banakako zenbatekoak ezingo du gainditu bi mila euroko kopurua, ezta entitateak eskatutako kopurua ere.

Eskabideak Lasarte-Oriako Udalaren Erregistro Orokorrean aurkeztu beharko dira edo horretarako legez ezarritako beste edozein lekutan, maiatzaren 25eko 13:00ak bitartean. Oinarriak eta inprimakiak Manuel Lekuona kultur etxeko bulegoetan daude, 2.solairuan, goizean eskuragarri.

SORGIN JAIAK

Berrerabilpena sustatzeko ekimena

Sorgin Jaietako antolatzaileek etxean erabiltzen ez diren gauzak jasotzeko deialdia egiten dute.

Berrerabilpena eman nahi zaie herritarrek etxean erabili gabe dituzten gauzei. Horrela, Sorgin Jaien aurretik, ostiral batzuetan gauzak biltzeko postu bat jarriko da Okendo plazan.

Bertan baso birziklatuak (etxean milaka pilatzen dira festen ostean), taldorenak, sokak, bakailao txapelketarako beharko diren butanozko suak... jasoko dira besteak beste.

GAZTERIA

Azken eguna maketa lehiaketarako

Udaleko Gazteria sailak, V. Musika Maketen lehiaketan parte hartzeko azken eguna da gaur. Estatu edo nazioarteko taldeak izan daitezke. Aurreko urtetan saritutakoek ezingo dute parte hartu. Izena emateko hiru kanta aurkeztu behar dira mp3 formatuan, horietako bi gutxienez jatorrizkoak. Kantekin batera izen-emate fitxa beteta eta taldearen argazkia bidali behar dira. Taldekideen %50a Lasarte-Orian erroldaturik dagoela adierazten bada, Lasarte-Oria sarian parte hartzeko aukera gongo da. Maketa berak ezin izango du sari bat baino gehiago eskuratu. Datu guztiak musika@lasarteoriansarean.eu helbidera bidali behar dira. Saria 1000 euro izango da eta 700 eurotako Lasarte-Oria saria jasotzen dutenentzat.



Bateragune auzia salatu zuten hainbat herritarrek- Elkarretaratzea egin zen atzo eguerdian Rafa Diez askatu lelopean. Bateragune auzian Rafa Diez herritarren, Arnaldo Otegi, Sonia Jazinto, Arkaitz Rodriguez eta Miren Zabaletaren kontrako zigorrari eutsi dio Espainiako Auzitegi Gorenak. Erabakia asteazkenean eman zen jakitera. Honek murriztu egin ditu aurretik Auzitegi Nazionalak ezarritako espetxe zigorrak eta Diezen kasuan baita Arnaldo Otegiarekin ere, hamar urteko zigoretik sei urte eta erdira jaitsi ditu. Jacinto, Rodriguez eta Zabaletaren kasuan zigorra zortzi urtetik seira pasa da. Lasarte-Oriako Bilduko udal ordezkariak, eragile politiko eta zenbait herritarrekin batera, auzia salatu eta Rafa Diez herritarren askatasuna eskatu zuten "politikagintza ez da delitua" azpimarratuz.

Zaintzaileentzako formazio jardunaldiak

► *Maiatzaren 21a eta 25a bitartean burutuko dira jardunaldiak Villa Mirentxun*

► *Hauetan parte hartzeko izena emateko azken eguna astelehena, maiatzak 14 izango da*

Udaleko Gizarte Zerbitzuak, Immigrazioa, Enplegua, Kooperazioa eta Emakumea departamentutik formazio-jardunaldiak antolatuta dira hurbileko ahaideekin zaintzaile-lanak egiten ari diren pertsonentzat.

Udaletik uste dute “zaintza onak bermatu ahal izateko, garrantzizkoa dela behar den informazio guztia edukitzea horrela baliabide hoberekin onurak jaso ahal izateko”.

Formazioak aste beteko iraupena izango du eta maiatzaren 21etik 25era bitartean egingo dira Villa Mirentxun. Egun bakoitzean, zainketekin zerikusia duen gai bat landuko da eta hauetan parte hartzeko aurrez izena eman behar da.

EGITARAU ZABALA

Maiatzaren 21ean, lehen saioa izanda, osasun zainketak izango dira hizpide. Hau gidatzeaz Lasarte-Oriako anbulatorioko erizainak arduratuko dira. Hauek etxebizitza batean eskaini daitezkeen oinarriko osasun-zainketen gainean arituko dira.

Maiatzaren 22an berriz, laguntza teknikoak izenpean, gaur egun zaintza hauek errazten dituzten produktu eta tresnei buruz hitz egingo da. Aldi berean hauek nola erabiltzen diren ere azalduko da, gurpil-aulkiak, garabiak, ohe egokituak besteak beste izango dira aztergai honetan.

Maiatzaren 23an, gizarte baliabideak izango dira abiapuntua. Udaleko gizarte langileek emango dute hitzaldia eta zaintzaileentzat nahiz menpekotasuna duten pertsona hauentzat erakundeek eskaintzen dituzten baliabide eta laguntzen inguruan hitz egingo dute.

Legedia ezagutu

Maiatzaren 24ean legea izango dute hizpide. Hurkoa Fundazioko kideek emango duten hitzaldian hainbat izango dira jorratuko dituzten gaiak: pertsona baten ezintasuna legalki aitortzeko prozesu judizialak, tutoretzak, halakoak eskatzea komeni den ala ez nola baloratu behar duen familiak besteak beste.

Jardunaldien azken saioa maiatzaren 25ean izango da,



Zaintza egokiak emateko formazioa oinarrikoa delako antolatuta ditu udalak jardunaldi hauek.

ostirala, eta sostengu psikologikoa izenpean, zaintzailea zaintzen espezializatutako psikologoak eskainiko du hitzaldia.

Zaintzailearen egoerak duen garrantziaz arituko da eta honekin batera sostengutaldeen eman dezaketen laguntza psikologiko onuragarriaz. Izan ere, prozesu berdi-

na bizitzen ari diren pertsonekin harremana izateak asko lagun dezake. Esperientziak komunean jartzea oso ona izan daiteke batez ere zaintzailea bakarrik senti ez dadin.

Izena ematea

Jardunaldiak Villa Mirentxun egingo dira 15:00etatik

17:00etara. Plaza mugatuak dira eta hauetan izena emateko azken eguna astelehena, maiatzak 14 izango da.

Eskaera Gizarte Zerbitzuetako administrazioan egin behar da 9:00etatik 13:00etara bitarteko ordutegian. Informazio gehiago eskuratzeko bertan edota 943 376 179 telefonora deitu daitezke.

“La Lechuga” antzezlanaren eta zine saioen amaiera

Gaur 20:30ean “La Lechuga” antzezlanaren izango da Manuel Lekuona kultur-etxean. Glu Glu produkzioak eskutik dator eta Gorka Aginagalde, Gurutze Beitia, Mari Cruz Melgosa, Galder Perez eta Gabriel Ocina aktore ezagunak izango dira ohol-tza gainean.

Komedia batekin datoz oraingoan, “La Lechuga”, César Sierra idazle eta zuzendari argentinarrek idatzitako lanarekin. Honakoa arrakasta handiarekin estreinatu zen New York, Miami, Txileko Santiago, Chicago edota Buenos Airesen besteak beste.

Komedia beltza

Txilen bizi den Rosita Nicolet antzerki aktore eta zuzendariak gidatuta, Glu Gluren ekoizpen hau mailaertaineko hainbat familiaren arazoa erakusten du.

Martinez familia da protagonista. Koman bederatzi urte daramatzen aitaren urtebetetzea ospatzeko elkartzan da familia guztia euren harreman txarra nolabait ezkatuta nahian.



“La Lechuga” antzezlanaren uneetako bat Gurutze Beitia aktorearekin. Sarrerak oraindik eskuragarri daude.

Tentsio uneak biziko dituzte protagonistek izan ere, euren arteko arazoak azalertzeko dira.

Sarrerak leihatilan 6 eurotan egongo dira eta Interneten 5 eurotan.

Zine saio arrakastatsuek

Bestalde, herriko eskaintza kulturalari dagokionez azpimarratzekoa da zinema ikasturteari amaiera emango zaiola igande honetan.

Urtarriletik lehen aldiz

ostegunetako filmak igandetan ere programatu dira eta oso harrera ona izan du honakoak herritarren artean.

Departamenduko zuzendaritzatik jakin arazi dutenez, hilabete hauetan, maiatzako

ikuslegoa kontutan hartu gabe, oraindik zenbatu gabe dago, zinema hurbildu den ikusle kopurua ia bikoiztu egin da, zehazki 749 pertsona izan dira Manuel Lekuona egindako saioetan.

Datu hauek ikusita Boris Nogales zinegotziaren hitzetan “argi dago emaitza hauekin hurrengo ikasturtean ostegun eta igandeko saioekin jarraituko dugula”.

Udako zine zikloa

Bestetik Nogalesek aurreratu nahi izan du “Okendo Zinema Taldearekin lanean ari gara Udako Zine Zikloa berreskuratzeko. Uztailean kalean bi zine saio egiteko asmoa dugu”.

Oraindik zehazteke dute non izango diren udako proiektzio hauek izan ere, Okendo plaza berria izan daiteke aukeretako bat edota Loizabarrengo frontoia. Herritar askok gogoratuko duten moduan, honako zine proiektzioak Okendo zaharreko frontoian egin ziren urtetan arrakasta handiz.

X. Antzerki eta Dantza Astea 14tik 25era

- *Kukuka Eskolako taldeek hamabost egunetan hogeit hamar emanaldi baino gehiago eskainiko dituzte*
- *Maiatzaren 26an egun osoko festarekin ospatuko du Antzerki eta Dantza Eskolak X. urteurrena*

Kukuka Eskolako Antzerki eta Dantza taldeek ikasturtean zehar ikasitakoa erakutsiko dute astelehenerik aurrera kultur-etxean eta herriko ikastetxeetan. Guztira 700 lagun inguruk parte hartuko dute eta 20 emanaldi baino gehiago eskainiko dira Antzerki eta Dantza hamabostaldi honetan. Hamabostaldiari egun osoko festarekin emango dio amaiera Kukuka Eskolak, maiatzaren 26an X. urteurrena dagokion neurrian ospatzeko.

Jon ALTUNA IZA

Asteazken goizean aurkeztu zituen Kukukak X. Antzerki eta Dantza Hamabostaldia eta maiatzaren 26ko ospakizuna Manuel Lekuona kultur-etxean. Pablo Barrio Lasarte-Oriako alkateak, Boris Nogales kultur zinegotziak eta Kukukako zenbait partaidek, besteak beste, Kontxu Iartza, Antzerki arloko arduradunak, Maider Oiartzabal, Dantza arloko arduradunak eta Joxe Mari Agirretxek aurten Kukukak hamar urte betetzen dituela eta ekintza berezia izango dela nabarmendu zuten.

Hamabostaldian antzerkia eta dantza ikasten ari diren herriko talde guztiak eskainiko dute euren lana eta, maiatzaren 26an, Kukukaren X. Urteurrenoko festarekin emango zaio amaiera hamabostaldiari. Egun osoko festa izango da, goizean Kukukako partaideek desfile koloretsua egingo dute, bazkari herrikoa izango da eta gaueko kontzertuetara bitartean kantua, bertsoa, musika, antzerkia, batukada, ipuin kontaketa, kale animazioa, DJ, ... denetarik egongo da giro bikainarekin.

Aurkezpenaren azpimarratu zuten 10 urteko lanari esker gaueko 700 lagun inguru ari dira dantzan eta antzerkian Kukuka eskolan. Beraz, orain arteko lana goraiatu zuten batetik, eta etorkizunaren bide beretik lanean jarraitzeko asmoa jakinarazi bestetik.

Joxe Mari Agirretxek hamabostaldiaren programa bete-betea datorrela aurreratu zuen, eta antzerkian edo dantzan adin guztietakoak ari direla nabarmendu: haurrak, eskola guztietan dago talderen bat, gaztetxo eta gazteak, helduak, solaskideak eta 2011tik zaharrak ere bai. Hauen taldeak "Kubalibre" izeneko lana eskainiko du.

Emanaldiak ikastoletan

Boris Nogalesek Kukuka zorientzearekin batera, emanaldi batzuek Kultur Etxetik atera eta eskaintza deszentralizatu egingo dela azpimarratu zuen. Antzerki eta Dantza Asteko emanaldi batzuk Landaberri eta Sasoetan burutuko dira goizean ikaskideek ikus dezaten eta gero herritarrentzat egingo dute arratsaldean.

Astelehenean, 14an Landaberriko LH5eko ikasleen taldea ikastolan 11:00etan eta Manuel Lekuonan 19:00etan.

Astearte, 15ean Landaberriko LH1 eta LH2ko ikasleen taldeak ikastolan 11:00etan eta kultur-etxean 19:00etan.

Asteazkenean 16an Landaberri institutuko DBH2ko ikasleen bi lan kultur etxean 11:30ean eta 19:00etan. Goizean dantza garaikidea ere bai.

Osteguna, 17an Landaberri eta Sasoeta-Zumaburu ikastetxeko LH6ko ikasleen bi lan



Udal ordezkarri eta Kukukako kideak, Hamabostaldiaren aurkezpenaren.

Pablo Barriok bere eskizofrenia aipatu zuen, alde batetik aurkezpen eta horrelako ekitaldietan alkate bezala dagoelako baina bestetik Pablok Kukukan jarraitzen duelako. Beste aldera itzuliko dela agindu zuen.

Antzerki eta dantza hamabostaldia 14tik 25era egingo

da, eta Kontxu Iartzak azaldu duenez Antzerki Eskolan ari diren talde guztiak prestatu dute antzezlanean bat.

Dantzan ere talde asko ari direnez ezin izan dituzte guztiak saio batean bildu eta bi emanaldi egingo direla aurreratu zuen Maider Oiartzabal

arduradunak: maiatzaren 20an, igandean, eguerdian euskal dantzak eta sorkuntza, eta arratsaldeko 19:00etan dantza garaikidea.

Ospakizun festa

Eta bukatzeko, maiatzaren 26an, ospakizun handia antolatu du Kukukak.

Goizean Kukukaren talde ezberdinen kalejira koloretsua egingo da, aurten berezia Trikihots taldekoek musika zuzenean joko baitute. Gainera kalejiran Kukukaren logo berriarekin egingo diren kamisetak estreinatuko dituzte parte hartzaileek. Kamisetak Ika eta Urruzola dendetan erosi ditzake nahi duenak 7 eurotan.

Bazkari herrikoirako txartelak Artizar eta Jalgin daude salgai, bestalde. Bazkariaren aurretik eta ondoren denetarik egongo da, erromeria, antzerkia, ipuin kontaketa, kantuak, kale animazioa, eta gauean The Garajekuak, Gaueko Itzallak eta Trikihots taldeak eskainiko dute kontzertua.

Eta ekainaren 2rako beste ikuskizun bikaina aurreratu dute: Oreaka TXeko txalapartariak eta Kukukako dantzariak batera 19:30ean kultur-etxean.

Bi astetako egitarau bete-betea

11:00etan eta 19:00etan kultur etxean.

Ostiralean 18an Landaberriko LH3ko ikasleen taldea ikastolan 11:00etan eta kultur etxean 19:00etan. Saio honetan Zubietako taldeak "Basoan galduta" lana eskainiko du.

Asteburuan lan bereziak eskainiko dira kultur-etxean, ostiralean 18an 22:30ean, gazteen taldearen "Shakespeare osoa"; larunbatean 19an 22:30ean helduen taldearen "Ixiltasunaren ahotsak" Sahrari buruzkoa eta igandean

dantza: 12:00etan Euskal Dantza Landaberri-Sasoetako ikasleak. 19:00etan, Dantza Garaikidea, gazte eta helduak.

Astelehenean, 21ean Sasoeta-Zumaburuko LH1-2 eta LH3-4ko ikasleen taldeak, ikastolan 11:30ean eta kultur etxean 19:00etan.

Astearte, 22an, Landaberriko LH4ko taldearen hiru lan, ikastolan 10:30ean eta kultur etxean 19:00etan.

Asteazkenean, 23an Landaberriko DBH3ko eta DBH4ko taldeen lanak 11:30ean eta

19:00etan kultur-etxean. Goizean DBH3-4koen dantza garaikide saioa ere bai.

Ostegunean, 24an Landaberriko DBH1 eta Kukuka taldeen inprobisaketak 11:30ean eta 19:00etan kultur-etxean. Goizeko saioan DBH1eko dantza garaikideko emanaldia izango da ere.

Ostiralean, 25ean bukatzeko, 19:00etan kultur etxean zaharren taldearen "Kubalibre" eta 22:30ean, helduen taldearen "Maitasun erratuak" eta "Piztiak dio" lanak.



NOAOA BIDAIK
GRUPO ALMEIDA VIAJES

Bidai haundietan
espezialista

ERRESERBAK ETA INFORMAZIOA

943373613

noaoabidaiak@almeidaviajes.com

Hipodromo Etorbidea, nº12
20160 LASARTE ORIA - GIPUZKOA

**EDOZEIN
ESKAINITZA
HOBETZEN DUGU**

**UDARAKO AURRE SALMENTA
MAIATZAK 31. ARTE**

www.noaoabidaiak.almeidaweb.com



OHARRAK.-

ATLETISMOA.-

Arrantza irteera

Buruntz-Azpi elkarteak maiaztaren 20ean, igandean, arrantzaldi arineko arrantza egiteko irteera antolatuta du.

Irteeran izena emateko Buruntz-Azpi elkartearen egoitzara hurbildu behar dira interesa dutenek, astearte eta ostegunetan 19:00etatik 20:00etara. Azken eguna maiatzaren 17a izango da.

Giroko Porran zerrendan zuzenketa

Ostadar SKT-k jakin arazi du Giroko porran akats bat zegoela zerrendan, Serge Pauwels bitan agertzen bait da 97 eta 187 zenbakiekin.

Antolakuntzak txirindulari hau zerrendatik ezabatzea erabaki du. Honela, norbaitek Serge Pauwels aukeratu balu, 98 Juan Manuel Garate edo 188 Dennis Van Windenekin puntuatuko luke.

Denboraldi amaierako afarirako tiketak

Ostadar SKT-k maiatzaren 26an denboraldi amaierako afaria antolatuta du.

Bertan egon nahi dutenek tiketa eskuratu behar dute bulegoan 18:30etik 20:00etara. Txartela eskuratzeko azken eguna maiatzaren 18a da.

Taldea lana banakako kiroletan

Landaberri ikastola hirugarren izan zen Gipuzkoako eskolarteko txapelketan

Landaberri eta Sasoea-Zumaburu ikastetxeetako atleta gazteak eskolarteko Gipuzkoako txapelketetan ari dira lehiatzen. Lehengo asteburuan, Landaberri ikastolak ikastetxe arteko hirugarren postua lortu zuen eta errelebu bigarren izan ziren.

Nerea EIZAGIRRE

Landaberri ikastolako atleta gazteak dominak eta trofeoak metatzen doaz azken asteetan.

Lehengo igandean, maiatzaren 6an, Iruen izan zen eskolarteko taldekako Gipuzkoako txapelketan hirugarren postua lortu zuten eta errelebu bigarren postua.

Eneritz Busto, Nerea Diez, Amaia Harto, Oihana Igarritz, Idoia Olasagasti, Garazi Santesteban eta Aroa Sotomayorrek osatu zuten taldea.



Hirugarren postua eskuratu zuen Landaberriko taldeak. Argazkian, Nerea Diez falta da.

Amaia Andres entrenatzaileak azaldu zigunez, "taldea egiteko Sasoea-Zumaburuko ikasleak hartu behar ditugu".

Helburua lortu zutela aipatu zigun, baina atsekagea erakutsi zuen lehenengo bi ikastetxeak Euskadiko Jokoe-tarako sailkatu direlako.

"Hurbil geratu gara. Hala ere, gazteak dira eta hurrengo urtea ere badute hobetu eta jokoetan egoteko," adierazi zuten.

Beste emaitzak

Bestalde, banakako jardunaldietan ere emaitza onak lortzen ari dira gazteak.

Apirilaren 22an, Tolosan izandako jardunaldian, infantil mailan Oihana Igarritzek pisuan Gipuzkoako txapeldu izatea lortu zuen eta jabalina jaurtiketan, 6. postuan amaitu zuen.

80 metrotako lasterketan eta luzera jauzian, Idoia Olasagasti txapeldu orde izan

zen. Eta Eneritz Bustok 4. postua eskuratu zuen luzera jauzian eta pisuan.

Atletismoaz gozatzen

Honetaz gain, Landaberriko 97 eta 96 urtean jaiotako taldeak Valentzian lortutako hirugarren postuari buruz ere mintzo zen Amaia Andres. "Ez zaio garrantzia handirik ematen, baina Estatu osoko 8 ikastetxe izan ziren lehiatzen. Euskadiko bakarrak ginen".

Emaitza hau taldeko txiki-txiki motibazio handia zela ere aipatu zuen, "gauzak ongi eginda eta entrenatzen, kanpora atera eta emaitzak egiten direla ikusten dute".

Izan ere, entrenatzaileak aipatu zigunez, "taldea lantzen dugu, atletismoa bakarkako kirola baldin bada ere. Nire ustez hau eragozpen bat da kirola egiteko. Gu taldean jokatzen saiatzen gara. Horrela entrenigarriagoa da haientzat".

Gainera gurasoei, ikastolari eta eskola kirolean lanean daudenei eskerrak eman nahi izan zizkien, oinarriko kirolean egiten den lanarengatik.

KIROL AGENDA.-

FUTBOLA

Ostirala 11

Martutene, Donostia, 18:30ean
Martutene-Ostadar
Alebinak, kopa

Larunbata 12

Michelinen, 10:30ean
Ostadar-Aurrera
Kadeteen Ohorezko maila, igoera
Michelinen, 12:00etan
Ostadar-SANSE
Jubenilen Ohorezko maila, igoera

Michelinen, 15:30ean
Ostadar-Astigarragako Mundarrok
Erregional Goren

Rezola, Añorga, 15:30ean
Añorga-Texas Lasartearra
I. Erregionala, kopa

Ibarra, Aretxabaleta, 15:30ean
Arizmendi-Ostadar
Emakumezkoen erregionala, 9 eta 10. postua

Michelinen, 17:15ean
Ostadar-Amara Berri
I. Erregionala, igoera

Igandea 13

Rezola, Añorga, 09:00etan
Añorga-Ostadar
Infantil txiki, kopa

Michelinen, 10:30ean
Ostadar-Lengokoak
Infantilen Ohorezko maila, kopa

Arizkorreta, Idiazabal, 11:00etan
Idiazabal-Ostadar
I. Infantil, kopa

ARETO-FUTBOLA

Ostirala 11

HERRIKO TXAPELKETA
Kirolegia, Finalerdia etorriko
20:00etan, Izkia-Txindoki
21:00etan, ISU Leioak-Buenetxea

Larunbata 12

HERRIKO TXAPELKETA
Kirol gunea, areto-futboleko kanta,
Ligaxka
09:30ean, Trumoi-Viña del Mar
10:30ean, Naiban-Ilargi

Kirolegia, 17:30ean
Aldaz H.K.-Mallabia Nazional III maila

Igandea 13

Manuel Muñoz kiroldegia, 10:30ean
Eskoriatza-ISU Leioak Euskal Liga

PILOTA

Larunbata 12

Michelingo pilotalekuan, 16:00etan
Intza-Hernani I. Udaberri txapelketa, eskuz binaka, 2. urteko alebinak
Intza-Hondarribi 2. Udaberri txapelketa, eskuz binaka, infantilak

SQUASHA

Ostirala 11

Kirolegia, 18:00etatik aurrera
Pablo Feroselle-Francisco Delgado
Iker Cañedo-Fernando Montero

TENISA

Ostirala 11-Igandea 13

A Coruña, egun osoa
Patxi Fadriquek 'II Open
International Ciudad de A Coruña'
tenis egokituko txapelketan parte hartuko du.

IGERIKETA

Larunbata 12

Azpeitia, 10:30ean eta 16:30ean
Buruntzaldea IKT-ko alebin mailako gaztetxoak eskolarteko Gipuzkoako txapelketan izango dira.

Igandea 13

Azpeitia, 10:30ean eta 17:00etan
Buruntzaldea IKT-ko gaztetxoak
Eskolarteko XXIX. Gipuzkoako txapelketan izango dira.

JUDO

Larunbata 12

Caceres, 09:30etik aurrera
LOKEko Oscar Garridok kadete mailako Espainiako txapelketan parte hartuko du.

ATLETISMOA

Larunbata 12

Tolosa, 16:30etik aurrera
LOKE taldeko eta herriko kadete, junior eta veterano mailako atletak

Gipuzkoako txapelketako jardunaldia dute.

Igandea 13

Eibar, 10:00etatik aurrera
Landaberri eta Sasoea-Zumaburu ikastolako gaztetxoak eskolarteko Gipuzkoako txapelketako jardunaldia dute.

Azpeitia, 10:00etatik aurrera
Herriko hainbat atleta Izarraitzeko VIII. Mendi lasterketan izango dira.
Donostia, 10:30etik aurrera
LOKE taldeko eta herriko kadete, junior eta veterano mailako atletak Gipuzkoako txapelketa dute.

DUATLOIA

Larunbata 12

Bilbo, 16:00etan
Herriko hainbat duatletek Bilboko Duatloian parte hartuko dute.

TRIATLOIA

Igandea 13

Deba, 13:00etan
Herriko hainbat duatletek Debako triatloian parte hartuko dute.

TXIRRINDULARITZA

Larunbata 12

Zumaia, 10:15ean
Bazpi txirindularitza eskolako eta herriko kadeteak Zumaia Sarrian

parte hartuko dute.

Hernani, 16:00etan

Bazpi txirindularitza eskolako infantilek Gipuzkoako taldekako erlojupeko txapelketa dute.

Oñati, 16:30ean

Bazpi txirindularitza eskolako eta herriko jubenelek XLIV Arantzazu Igoera proban parte hartuko dute.

Igandea 13

Biyak Bat, 08:00etan

Ostadar SKT-ko zikloturistek irteera dute Mutiloara.

Bilabona, 08:00etan
Herriko hainbat txirindulari
Billabonako 6. martxa zikloturistan parte hartuko dute.

ERRUGBYA

Larunbata 12

Ubitarte, Andoain
Beltzak Ostadar Jalai errugby eskolako alebnek erakusketan egingo dute.

Igandea 13

Michelin, 09:00etan

Beltzak Ostadar Jalai errugby eskolako gazteek entrenamendua dute.

BOLO-JOKOA

Igandea 13

Hernani, 10:00etan eta 16:30ean
Ostadar SKT-ko bolo jokalariek Gipuzkoako kopako azken saioa dute.

Agenda

Larunbata 12, egun osoa



Koloreetako jaialdia

Egun osoko egitarau antolatu dute herriko Pirritx, Porrotx eta Marimotots pailazoek eta herriko elkarte Lasarte-Oriako Udalaren laguntzaz. Musika izango da nagusi goizetik gure herrian. Bonberenea txarangarekin desfilea, "Motxila 21" en kontzertua, herriko pailazo bihurrien emanaldiak eta amaitzeko, Deabru Beltzak-en "The Wolves" kale antzerkia.

Jaialdi handia

Larunbata 12

OKENDO PLAZA
11:00etan

Bonberenea txarangak gure herriko kaleak girotuko ditu. Honekin batera desfilean Pirritx, Porrotx eta Marimotots pailazoak, Jalgune elkarte gazteak, Kukuka antzerki eta dantza eskolako kideak izango dira.

OKENDO PLAZA
12:00etan

"Motxila 21" Iruñeako taldeak kontzertu berezia eskainiko du. Down sindromea duten gazteek osatzen dute talde arrakastatsua.

MANUEL LEKUONA KULTUR-ETXEA
16:30etan eta 19:00etan

Pirritx, Porrotx eta Marimotots herriko pailazoek "Zazpikoloroa" ikuskizuna eskainiko dute. Sarrera internet bidez, 5 euro eta leihatilan 6 euro.

OKENDO PLAZA
21:30etan

Deabru Beltzak taldeak "The Wolves" kale antzerki beldurgarria dakar gure herriko kaleetara. Eusko Jaurilaritzaren kale-antzerkia sustatuz ekimenaren baitako saioa da.

Oharra

Pirritx, Porrotx eta Marimototsen "Zazpikoloroa" ikuskizuneko lehenengo saiorako sarrerak agortuak daude. Bigarren ekitaldirako sarrerak geratzen dira oraindik.

Lasarte-Oria Zinema

MANUEL LEKUONA KULTUR-ETXEA
Igandea 13, 17:00etan

Haurrentzako zinea atalean, "Dr Seuss' Lorax: en busca de la trufula perdida" filma ikusgai izango da. Gaztelaniaz. Sarrera 3,40 euro.

Igandea 13, 19:30etan

Okendo Zinema taldearen eskutik, "Le Havre" filma eskainiko da, helduentzako zinea atalean. Gaztelaniaz. Sarrera 5,50 euro.



Antzerkia

MANUEL LEKUONA KULTUR-ETXEA
Ostirala 11, 20:30etan

"La lechuga" antzerki lana eskainiko du Glu-glu produktioak. Gaztelaniaz. Sarrera internet bidez, 5 euro eta leihatilan 6 euro.

Bakarrizketa

JALGI KAFE-ANTZOKIAN
Ostirala 11, 22:30etan

Barry Barrez-ek "An Seanachai road show" bakarrizketa eskainiko du.

Musika

SAGARDOTEGI KALEA
Ostirala 11, 20:00etan

Izaskun eta Uxue trikitilari eta pandero joleen saioa.

Erakusketa

JALGI KAFE-ANTZOKIA
Maiatzaren 9tik 16ra

Mundu Bat GKE-ren "Amerika erdialdeko emakumeak: halakoak gara, halaxe borrokatzen dugu" argazkien erakusketa ikusgai dago.

MANUEL LEKUONA KULTUR-ETXEA
Maiatzaren 9tik 16ra

Lasarte-Oria elkarte marrazki eta margo ikastaroko ikasleen erakusketa ikusgai izango da.

Bestelakoa

XIRIMIRI ELKARTEA
Larunbata 12, 21:00etan

Euskal preso politikoak prentsa jasotzen jarraitu ahal izateko, barrikotea antolatu dute.

Herritarren txokoa

Galdutako gauzak

Lehengor larunbatean, maiatzaren 5ean, Loidi-Barrengo pilotalekuan izan zen Amaraun jaialdian, Batman-en kapa grisa eta beltza galdu zen.

Norbaitek aurkituz gero, dei dezala mesedez 636694375 telefono zenbakira.

Lourdesera irteera

Biyak Bat erretiratuen elkarteak Lourdesera txangoa antolatu du maiatzaren 17an osteguna.

Goizeko 7:30etan aterako da autobusa Lasarte-Oriatik. Lourdesera iritsi eta 11:00etan, On Ramon Urribetxeberriak emandako meza izango da. Ostein, denbora libre izango da bazkal ordura arte, hau da, 13:00ak arte.

Jarraian, Betharram-eko kobazuloa bisitatuko da. Bisita honek hiru zati ditu, bata oinez, bestea barkuan eta azken zatia txu-txu tren batean egiten dira.

Txangoaren prezioa 34 euro da elkarte bazkideentzako eta bazkide ez direnek 38 euro ordaindu behar dituzte.

Herri Urratsera autobusa

Ttaku kultur elkarteak maiatzaren 13an Senperen antolatuko den Herri Urratsera joateko autobusa jarriko du. Autobusa 9:00etan aterako da Sagardotegi kaletik.

Txartelak salgai dira Ttaku-eko bulegoan eta Jalgi kafe-antzokian. Ttaku-eko kide eta gazteentzat 12 eurotan izango dira salgai eta gainontzekoek 14 euro ordaindu beharko dituzte.

Txakurra galdu da

Thor hiru urteko Spaniel Bretona galdu zen apirilaren 21ean Cocheraseko bidegorriaren inguruan. Kolore gorri-ka du txuri gutxirekin. Mikrotxipa dauka.

Norbaitek aurkitu badu honako telefonoetara deitzea eskertuko genuke 687 571 037 eta 670 950 785. Sarituko da.

Hirigintza saila Ganbo kalean

Lasarte-Oriako udalak gogora arazi nahi du Obrak eta Hirigintza sailaren zerbitzua publikoarentzat irekita dagoela Ganbo Kaleko 1. zenbakian.

Hemeroteka

Duela 1014 ale



Lasarte-Oriako kulturak 1993an zuen egoera aztertu nahi izan zuen TXINTXARRI aldizkariak. Horretarako Antton Salsamendi (Sendoki K.B.), Aitor Atxega (Ttaku K.E.), Arrate Otaegi (Añña E.T.), Elena Ginea (Tximua K.Z.), J. M^a Arruti (Erketz D.T.) eta Xabier Goitia Manuel Lekuona kultur-etxeko kudeatzaile batzuen mahai inguru batean. Jone Altuna, kultura batzordeko buruak idatziz erantzun zituen galderak. Moderatzaile lanetan, Asier Odriozola kazetaria egon zen.

Mahai inguruan hainbat gai jorratu ziren, hala nola, Udalaren lana, euskararen presentzia kultur ekimenetan, herritarren erantzuna eta hauen parte-hartzea. Zein kultura mota egin behar den eta Manuel Lekuona kultur-etxean ekitaldiak zentralizatzea ere mintzo ziren.

Elkarteetako kideek Udalak jarritako oztipoak azpimarratzen zituzten eta talde eta herritarren nahia jaso eta horren arabera lan egin beharko lukeela adierazi zuten. Gainera, auzoetako kultura indartu behar zela ere aipatu zuten.

Zuen oharrak jarri, kexak adierazi edo eskutitzak argitaratzeko: Geltoki kalea, 4 943 366858 txintxarri@txintxarri.info

Berradiskidetzea helburu

Balioetan Hezi IX. jardunaldietan, Euskal gizartean eta bizikidetzan dauden gatazkak aztertu dira

Danok Kide elkarteak Balioetan Hezi jardunaldiak antolatu ditu astelehenetik ostegunera Manuel Lekuona kultur-etxeke hitzaldi aretoan. Aurten "Bizikidetzaren berradiskidetzea, pertsona eta gizarte mailan dagokiguna" izan du gaia hitzaldi zikloak eta berradiskidetzari buruz mintzatzeko, Baketik taldeko Pello Sarasua izan da Manuel Lekuonan.

Nerea EIZAGIRRE

Bizikidetzea eta berradiskidetzea izan dira aurten Danok Kide elkarteak antolatzen duen Balioetan Hezi hitzaldi zikloan landu diren gaiak.

Pello Sarasuak eskaini dituen lau hitzaldietan bi kontzeptu hauek pertsonengan eta gizartean duten garrantzia aztertu da.

Sarasuak azaldu zuenez, hitzaldi ziklo honek bi helburu izan ditu, batetik ideiak elkarbanatu, hau da, guztiak hitzak, ideiak eta kontzeptuak berdin ulertzea eta bigarrenik, masa kritikoa sortzea.

Horregatik, Baketik elkarteko kideak esandakoa entzuteaz gain, herritarrek haien iritzia eman ahal izan dute hitzaldien ostean egin diren solasaldietan.

Pertsonatik gizartera

Hitzaldietan pertsonalki bakoitzak zer egin behar duen, Euskal gatazkari dagokionez gizarteak nola jokatu behar duen eta sufrimenduarren gaiari buruz mintzo zen.

Oinarri bezala Pello Sarasuak pertsona, gatazka, berradiskidetzea eta biziz ikasi puntuak jorratu zituen.

Pertsona aztertu zuen. Honen hobetze nahiak aipatu



Pello Sarasuak berradiskidetzaren eta bizikidetzaren garrantziaz mintzo zen Balioetan Hezi hitzaldi zikloko IX. edizioan.

zituena eta hobetzeak zer esanahi duen azaldu zuen, "bizi eta elkarbizitza hobea izateko. Hau guztia, giza duintasunean oinarrituta".

Pertsonak dituzten barne gatazkak ere aipatu zituen, "autokritika gutxi dago eta pertsonak bere buruari gezurra esaten diote".

Baketik elkartearen ikuspegitik, berradiskidetzea zer den ere azaldu zuen eta pertsona edo gizarte arlo honetan hobetzeko proposamenak egin zituen.

Besteak beste, Euskal Herriko gatazka politikoan murgildu zen asteazkenean. Eta hau edo edozein gatazka

konpontzeko egin beharreko pausuak azaldu zituen.

Azkenik, atzo arratsaldean, gatazkak sortzen duen sufrimendua aztertu zuen. Izan ere, azpimarratu zuen bezala, berradiskidetzaren oinarrietako bat gatazkan dauden guztien sufrimendua ulertzea da.



**USURBILGO
LANBIDE
ESKOLA**

IEFPS USURBIL GLHBI



**Goi-mailako
Erdi-mailako
HEZIKETA
ZIKLOAK**

ATE IREKIAK

**Maiatzaren
12an eta 19an,
larunbatez**

Energia eta ura



Mekanika



Elektrizitatea



Administrarritza

e-mail: eskola@lhusurbil.com

Etarte bidea 9 (Zubieta) 20170 USURBIL - Tel.: 943 364 600